

IBILBIDEA

ARRISKUAK DAKARTZATEN LEHENTASUNAK



matia
gogoz bizi



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Matia Fundazioaren proiektua, Teresa Martínezekin lankidetzan

Egile nagusia:

Teresa Martínez Rodríguez

Proiektua idazten lagundu dutenak:

Pura Díaz-Veiga eta Maria Francesca Cerdó

Egoitza eta zerbitzu hauetatik jasoak dira ibilbide honetako adibideak eta esperientziak:

Iza, Bermingham, Petra Lekuona, Argixao eta Matia Fundazioaren Etxeko Arreta Integraleko Zerbitzua (Matia Etxean). Testuaren egileak: Marta Idiakez, Marcos Fernández, Amaia Zulaica, Irene Bareño, Jone Eguren, María Sarasola, Sonia Rodríguez, Begoña Goialde, Cinzia Sannino, Mainer Azurmendi eta Kira Rojas.

Praktikarako baliabideak prestatu dituztenak:

Teresa Martínez, Pura Díaz-Veiga, Maria Francesca Cerdó, Arantza Gutiérrez, Begoña Goialde, Irene Bareño, Jaione Sagarna, Laura Miguel, Marcos Fernández, Amaia Zulaica, Leire Goikoetxea, Isabel Carrasco, Alberto Uriarte, Cristina Buiza, Nuria Borràs, Penélope Castejón, Estibaliz Aguado, Cinzia Sannino.

Praktikarako baliabideen maketazioa eta eduki grafikoaren aukeraketa:

Gorka Alías, Juan Carlos Mejía eta Irati Arruabarrena.

Agiria orraztu dutenak:

Cinzia Sannino, Amaia Ansa, Alberto Uriarte eta Mainer Azurmendi.

AURKIBIDEA

| | |
|--|-----------|
| 1. «AURRERABIDEAK PERTSONA ARDATZ DUEN ARRETAN» PROIEKTUA | 7 |
| Zer da PAA aurrerabide bat, eta zer helburu du? | 8 |
| Zer ibilbide prestatu dira? | 8 |
| Zer informazio aurkituko dugu ibilbide bakoitzean? | 9 |
| 2. «ARRISKUAK DAKARTZATEN LEHENTASUNAK» IBILBIDEA | 11 |
| 2.1. Hasierako gogoetak | 11 |
| 2.2. Zenbait gai garrantzitsu eta «arriskuak dakartzaten lehentasunak» ibilbidearen alde egiteko funtsezko elementuak | 14 |
| ● Segurtasunaren, burujabetzaren eta ongizatearen arteko orekaren bila | 15 |
| ● Erabaki partekatuen prozesuak planifikatzea eta garatzea | 19 |
| ● Baietzaren kulturarantz aurrera egitea | 37 |
| 3. PRAKTIKARAKO BALIABIDEAK | 45 |
| 4. ZENBAIT ARTIKULU ETA AGIRI INTERESGARRI | 49 |

1.

«AURRERABIDEAK PROIEKTUA» PERTSONA ARDATZ DUEN ARRETAN



Matia Fundazioaren eta ACP Gerontologiaren baterako ekimena da «Aurrerabideak Pertsona Ardatz duen Arretan» proiektua, eta hau du sorburu: pertsona lehenesten duen arretaranzko bidean Matia Fundazioak eginiko bidea.

Hona proiektuaren helburu nagusia: laguntzea arreta zerbitzuan txertatzen ezagutza, Matia Fundazioan martxan jarritako arrakastadun proiektuak eta eguneroko jardunean ikasitakoa. Proiektuko profesional taldeen, zerbitzuen arduradunen, erabiltzaileen eta haien familien ekintzari eta gogoetari esker egiten du aurrera proiektuak. Funtsekoak izan dira horien guztien hausnarketak eta ikaspenak proiektuaren sistematizaziorako.

Bestalde, arretaren gaineko ikuspegi hori sustatzeko ere baliagarri da proiektua. Izan ere, inoiz baino beharrezkoagoa da gaur egun arreta mota hori, COVID-19aren pandemia dela eta.

Zer da Pertsona Ardatz duen Arretan (PAA) aurrerabide bat, eta zer helburu du?

Zenbait irizpidek, ekintzak eta elementuk osatzen dituzte ibilbideak, lehendik zegoen ezagutza eta metatutako esperientzia lagun dituztela, gure ikuspegia egokiro aplikatzeko egoitza eta zerbitzuetan.

Aurrerabideak malgutasunez gauzatzen laguntzea da PAA ibilbideen egitekoa, pertsona ardatz duen arretarako bidean gidatzea egoitzak, zerbitzuak eta taldeak, estrategia propio bati jarraikiz eta arreta mota horretan aurrera egiteko behar den ikuspegi orokorra eta orientabide garbia aintzat harturik.

Zer ibilbide prestatu dira?

Proiektuaren lehenbiziko fasean, bost ibilbide identifikatu eta prestatu dira, zenbait talde eta egoitzatako profesionalek eta arduradunek parte hartu duten prozesu baten bitartez:



Ibilbidea 0

Antolakuntza kultura eta PAA aurrera egiten laguntzen duten elementuak



Ibilbidea 1

Tratu egokia



Ibilbidea 2

Pertsonen partaidetza beren buruaren arretan



Ibilbidea 3

Dementzia duten pertsonak: komunikazioa eta ongizatea



Ibilbidea 4

Arriskuak eragin ditzaketen lehentasunak

Zer informazio aurkituko dugu ibilbide bakoitzean

Zenbait elementuk osatzen dute ibilbide bakoitza:



01

Ibilbidearen esparru deskribapena, hots:

- a) Hasierako gogoetak, ikuspegi bikoitz batetik begiratuta: etikoa eta zientifikoa.
- b) Gai garrantzitsuak eta jarduera profesional egokirako funtsezko elementuak¹.



02

Praktikarako baliabideak:

Ibilbide bakoitza garatzeko eta aurreratzeko lagungarri gisa identifikatu diren estrategiak eta tresnak barne hartzen dituzte. Askotariko baliabideak bildu eta landu dira, eta eskuragarri dituzte bai egoitzek, bai zerbitzuek.



03

Zenbait artikulu eta agiri interesgarri:

Ibilbidearen edukiaz gehiago jakiteko aukera ematen diete taldeei baliabide horiek (artikulu zientifikoak, agiri teknikoak, jardunbide egoki gisa hartu diren esperientzia aplikatuak).

¹ «Praxi egokia» aukeratu dugu, «jardunbide profesional egokiaren» ordez. Gure ustean, irismen handiagoa du «praxi profesionala» terminoak, jardunbide egokietan zehazten diren elementuen nahitaezko barneratze prozesua aipatzen baitu. Hau da, adinekoa ardatz duen zaintzan jardunbide profesional egokiak ikuspegi horretatik objektibatutako edo baliozkotutako prozesu edo alor baten alderdiak adierazten ditu; praxi egokiak, berriz, profesional bakoitzaren konpromisoa, aldez aurreko gogoeta prozesu baten ondoren.

2.

«ARRISKUAK DAKARTZATEN LEHENTASUNAK» IBILBIDEA

2.1. HASIERAKO GOGOETAK



Zer dela eta arriskuak dakartzaten lehentasunei buruzko ibilbide bat?

Pertsonen zaintzaren alorrean, ez da harritzekoa izaten gatazkak sortzea hauen artean: adinekoen lehentasunak edo erabakiak, alde batetik, eta zaindu beharreko beste balio batzuk (osasuna eta segurtasuna, adibidez), bestetik. Argi ikusi da lehia hori COVID-19aren pandemia dela eta.

Ziurgabetasun handia eragiten dute egoera horiek arreta-taldeetan, eta batzuetan ez dira ados jartzen erabili beharreko prozedura dela eta.

Horregatik, komeni da eztabaida-prozesu bati ekitea hausnartutako aukerak adosteko, betiere adinekoen babesa eta ongizatea lehentasun direla, eta dokumentatutako plan pertsonalizatu bat baliatuz, arriskuak ahalik eta gehiena murrizteko.



Zein dira «Arriskuak dakartzaten lehentasunak» ibilbidearen alde egiteko irizpide nagusiak?

- **Bizitzeak eta burujabetzaren alde egiteak zenbait arrisku dakartza berekin**



Berezkoa du arriskua bizitzak. Are gehiago nolabaiteko askatasuneremuak mantenduz bizitzen saiatuz gero. Izan ere, zaintza jasotzeagatik ez dago zertan uko egin erabat seguruak ez diren biziera guztiei.

Pertsona ardatz duen arretak gizakiaren eskubidetzat aitortzen du burujabetza, eta errespetatu egiten ditu norbanakoaren balioak, baita haren osasunari eta segurtasunari dagozkion zenbait jarraibide teknikorekin bat ez badatoz ere.

- **Pertsonak babestea da egoitzen eta profesionalen egitekoa, arriskuak identifikatuz eta haiek gutxitzeko baliabideak bilatuz**



Pertsonen burujabetzaren alde egiteaz gain, haiek babestea da egoitzen eta profesionalen egitekoa, inongo kalterik jasan ez dezaten. Askotarikoak izan daitezke kalteak, eta adinekoaren osotasun fisikoari ez ezik, osotasun moralari, emozionalari eta sozialari ere eragiten diote. Askoz ere zailagoa izaten da bigarren multzo horretako kalteak identifikatzea eta frogatzea.

Beraz, oso garrantzitsua da arriskuak identifikatzea, haien maiztasuna eta larritasuna ebaluatzea, eta haiek gutxitzeko neurriak eta baliabideak proposatzea.

- **Askatasuna murrizten duten neurriak ez dira kaltegabeak**



Segurtasunaren aldeko neurriek ere eragin ditzakete ondorio kaltegarriak. Baina osotasun fisikoaren aurkakoak ez ezik, kalte emozionalak eta psikologikoak ere har daitezke tratu desegokitzat.

- **Bakarra da egoera bakoitza, eta —nolabait— berria**



Horregatik, nahitaez banaka baloratu behar dira egoera horiek. Erabaki partekatuak hartzea funtsezko estrategia da egoera horiei ekiteko, eta aukera bakarra egoera bakoitzerako. Xedea: adinekoak, haren familiak eta profesionalak elkar entzutea, gogoeta bateratua egitea eta elkarrekin jardutea.

- **Zaintza-premia izan arren, gaitasun guztien jabe direnek ez dute galdu behar erabakiak hartzeko eskubidea**



Erabakiak har ditzakete horretarako behar adinako gaitasuna duten adinekoek, betiere nahikoa informazio eman bazaie, hertsapenik jasotzen ez badute eta euren erabakien ondorioekiko erantzukizuna berenganatzen badute.

● Mugak ditu burujabetzak



Mugak ditu adinekoen burujabetzak. Lehenetasun guztiak ezin dira onartu. Hau da mugak ezartzeko irizpide nagusia: adinekoak bere buruari edo beste batzuei kalte egiteko arriskua. Beste muga batzuk: indarrean den araudia bete egin behar dela, eta esku-hartzeak justizia-printzipioaren arabera egin behar direla.

● Jarduera profesional arduratsua vs zuhurtziagabea



Profesionalki zuzena izan behar du pertsoneri arriskuak eragiten diezazkieketen lehenetasunen aldeko jarduerak, eta saihestu egin behar dira jokabide arduragabeak eta zuhurtziagabeak.

Hona zeri deritzon zuhurtziagabekeria profesionala: arrisku-egoera nabarmen batean adinekoak kalterik ez jasateko behar diren baliabideak ez jartzeari.

Jardunbide profesional baten egokitasuna frogatzeko, hau egiaztatu behar dugu: adinekoaren segurtasuna eta ongizatea uztartzen ahalegindu garelara, arriskuak gutxitzeko neurriak hartu ditugula, eta behar bezala bete dela ekintza-plana. Hots, egiaztatu behar dugu ez dela egon ez arduragabekeriarik, ez zuhurtziagabekeriarik².

● Arriskuak dakartzaten lehenetasunen alde egiteko, kalitatearen beste ikuspegi bat jorratu behar da, adinekoen segurtasuna ez ezik beste zenbait alor ere aintzat hartzen dituen



Segurtasunaren, burujabetzaren eta ongizate subjektiboaren arteko oreka helburu dituen kalitateko arreta lortzen saiatu behar dugu. Honetaz kontzientziatu behar dugu jendea: segurtasuna ez da lehenetasun bakarra eta, gainera, adinekoak babesteko hartzen diren neurri batzuek kalte moralak eta psikologikoak eragin diezazkiekete haiei.

Gogoan izan osasuna eskubide bat dela, ez betekizun bat; hartara, jarrera egokiagoak hartuko ditugu adinekoen zenbait erabaki pertsonalekiko.

² Ibilbide horren material osagarri gisa, "Nola hartu arriskuak dakartzaten lehenetasunen gaineko erabaki partekatuak" Gida egin da. Bertan, talde profesionalek jarraitu beharreko prozesua zehazten da.


2.2. ZENBAIT GAI GARRANTZITSU ETA «ARRISKUAK DAKARTZATEN LEHENTASUNEN» ALDE EGITEKO FUNTSEZKO ELEMENTUAK

Funtsezko hiru elementu dituzue ibilbide honetan, garrantzitsuak hirurak ere arriskuak dakartzaten lehentasunen alde egiteko.

| | GAI GARRANTZITSUAK | JARDUERA PROFESIONAL EGOKIA SUSTATZEKO ETA ERRAZTEKO FUNTSEZKO ELEMENTUAK |
|----|--|---|
| 1. | Segurtasunaren, burujabetzaren eta ongizatearen arteko oreka lortzen saiatzea | 1.1. Gogoeta egitea honetaz: zein diren murrizketarik ohikoenak, nola eragiten dieten adinekoei, zer erantzun proposatzen ditugun |
| 2. | Erabaki partekatuen prozesuak planifikatzea eta garatzea | 2.1. Aukera pertsonalizatuak, beti 2.2. Adinekoaren, haren familiaren eta profesionalen partaidetza 2.3. Lehentasunak adinekoarentzat duen garrantziaz ohartzea 2.4. Arriskuak eta onurak baloratzea, eta konponbide zuhurrak eta lorgarriak bilatzea 2.5. Ekintza-plana prestatzea eta berrikustea 2.6. Gaitasuna baloratu behar bada 2.7. Lehentasunaren alde egin ezin bada |
| 3. | Baietzaren kulturarantz aurrera egitea | 3.1. Sentsibilizazioa 3.2. Komunikazioa 3.3. Ingurune seguruak, malguak eta sortzaileak 3.4. Aliatuak komunitatean |

LEHEN GAI GARRANTZITSUA:

1. Segurtasunaren, burujabetzaren eta ongizatearen arteko orekaren bila



Eguneroko zaintza-lanetan ari garela, **zenbait lehenetasun adierazten dituzte adinekoek**; profesionalok, berriz, ez dugu asmatzen nola jardun, lehenetasunek berekin dakartzaten arriskuak direla eta. Adibidez, zenbait elikagai birrindu gabe hartzen jarraitu nahi izatea, pertsonak mastekatzeko eta/edo irensteko arazoak dituenen (disfagia), edari alkoholdunak kontsumitu eta/edo osasun-arazoak daudenean erretzea, debekatutako lekuetan erretzea, kalera bakarrik irtetea narriadura kognitiboa duenean edo erortzeko arriskua dagoenean, osasun-arazoak prebenitzeko edo tratatzeko ezinbesteko tratamenduak hartu nahi ez izatea edo ohiko egoeraren bat baztertea...



COVID-19ari aurre egitearren eta kutsatzeak zein heriotzak saihestearren osasun-arloan ezarritako murrizketek aldaketa erabatekoak eragin dituzte egoitzetan bizi diren adinekoen artean, eta desafio berriak ekarri dizkiete profesionalei. Izan ere, larriki murriztu zaizkie adinekoei zenbait eskubide (senideak ikustekoa eta haiekin egotekoa, egoitzatik irtetekoa, zer arrisku-maila onar dezaketen erabakitzekoa...), eta horrek begien bistako kalte moralak eta psikologikoak eragin dizkie. Biztanleria arruntari baino zorrotzago eta luzeago aplikatu zaizkie murrizketa horiek egoitzetako adinekoei.

Honenbestez, murrizketek eragin ditzaketen kalteak gutxitzeko erdibideko ekintza-ibilbideak asmatu behar izan dira. Oso baliagarria eta beharrezkoa izan da jardunbide hori pandemia-garairako.

Egoera horretatik landa, komeni da gogoeta egitea adinekoen arriskuzko lehentasunei buruz, gure usteak, beldurrak, gaitasunak eta mugak ezagutzearren.

Funtsezko elementuak

- 1.1. Gogoeta egitea honetaz: zein diren egoitzako murrizketa ohikoenak, nola eragiten dieten adinekoei, nola ekiten diegun egoera horiei eta zer erantzun proposatzen ditugun

1.1. Gogoeta egitea honetaz: zein diren egoitzako murrizketa ohikoenak, nola eragiten dieten adinekoei, nola ekiten diegun egoera horiei eta zer erantzun proposatzen ditugun




Zuzeneko eragina dute adinekoak zaintzeko gure eran haien segurtasunaz eta autonomiaz dugun ikuspegiak eta erronken aurrean profesional gisa erreakzionatzen dugun moduak.

Horregatik, **komeni da gogoeta egitea adinekoen arriskuzko lehenetsune buruz dugun jarreraz**, haien eskubideez eta gaitasunez ditugun usteak eta gure erantzukizun profesionala ezagutzeko.

Gure zailtasunez eta dauden mugez jabetzeko lagungarri izango zaigu gogoeta, bai eta zuzentzeak eta errespetuz jarduteko ditugun gaitasunez eta aukerez ohartzeko ere.

Horrez gain, adinekoen burujabetza eta autonomia sustatzen eta babesten duten zenbait bide jorratzen ere lagunduko digu.

Lehenbizi, norberak egin behar du gogoeta eta, ondoren, talde osoak. Lagungarri izan dakizkiguke, besteak beste, galdera hauek.



Gogoetarako galderak

- Egoitzako adinekoen arriskuzko lehentasunetatik, zein dira zailtasun-iturri?
- Zein dira ohikoenak? Zeinek kezkatzen gaituzte gehiena? Zergatik?
- Nola ekiten diegu? Egoeraren azterketa osoa izaten dugu abiapuntu eta segurtasunaren, askatasunaren eta ongizatearen arteko oreka lortzen saiatzen gara, ala adinekoen segurtasunari bakarrik erreparatzen diogu?
- Zenbateraino ohartzen gara adinekoentzat garrantzizkoak diren lehentasunak murrizteak kalte moral eta emozional larria ere eragin dezakeela?
- Zer beldur eta zailtasun sortzen dira gai horiei ekitean?
- Zenbateraino erabiltzen ditugu irizpide berak egoitzako profesionalok gai horiei ekiteko eta konponbidea bilatzeko?

BIGARREN GAI GARRANTZITSUA:

2. Erabaki partekatuen prozesuak planifikatzea eta garatzea



Hona egoitzetako adinekoak artatzeko erabaki partekatuen definizioa: **zaintzen hartzaile den pertsonaren (edo hala badagokio, haren familiaren) eta zaintzen emaile diren profesionalen arteko elkarlanerako modu bat**, betiere adinekoaren arretari edo bizitzari dagozkien eta arriskuak, zailtasunak eta ziurgabetasuna dakartzaten lehentasunen eta aukeren alorrekoa.

Gutziz pertsonalizatua izan behar du prozesuak, **bakarrak baitira pertsona eta egoera bakoitza**.

“Nola hartu arriskuak dakartzaten lehentasunen gaineko erabaki partekatuak”

Gidan erabaki partekatuen prozesua gauzatzeko sekuentzia bat eskaintzen da, bai eta hori gauzatzeko gomendioak ere.

Funtsezko elementuak

- 2.1. Pertsonalizatuak izan behar dute aukerak, beti
- 2.2. Adinekoaren, haren familiaren eta profesionalen partaidetza
- 2.3. Lehentasunak adinekoarentzat duen garrantziaz ohartzea
- 2.4. Arriskuak eta onurak baloratzea, eta konponbide zuhurrak eta lorgarriak bilatzea
- 2.5. Ekintza-plana prestatzea eta berrikustea
- 2.6. Gaitasuna baloratu behar bada
- 2.7. Lehentasunaren alde egin ezin bada
- 2.8. Adinekoak bere lehentasunari eutsi nahi badio baina guk ezin badiogu lagundu

2.1. Pertsonalizatuak izan behar dute aukerek, beti



Bakarra da pertsona bakoitza. Eta besteak ez bezalakoa da egoera bakoitza, baita pertsona berean ere. Horregatik, **ezinbestekoa da azterketa indibiduala**, adinekoarentzat arriskugarriak izan daitezkeen lehenetasun edo egoeretan erabaki pertsonalizatuak eta zuhurrak hartzeko.

Ezin dira arau berak aplikatu edo aukera berak eskaini berdinak iruditu arren desberdinak diren egoeretan.

Bestalde, murrizketak edo debekuak ez du izan behar lehenbiziko erantzuna, ezta nagusia ere.

Beraz, erantzun espezifiko eskatzen du egoera bakoitzak. Prozesu partekatu baten bidez erabakitzen badugu, **ez dugu hartuko erabaki orokorrik egoera konplexuei aurre egiteko**. Izan ere, egoera batzuek eragiten duten konplexutasuna kontuan hartuta, erantzun bateratua emateak babestu egiten gaitu, segurtasuna ematen digu, eta arazoetatik libratzen.

Laburbilduz, erabaki bateratuak hartzen badira **aukera pertsonalizatuak bilatzen saiatzen dira prozesuko parte-hartzaile guztiak, eta egoera bakoitza nolabait berria eta bakarra** dela jabetzen.




Denontzat konponbide berak ez duela balio ohartzen hasiak gara.

Daniel eta Luis, adibidez, gozozale amorratuak dira, baina desberdintasun asko izan behar dira kontuan haiekiko jokabide egokia zein den erabaki aurretik, azukre gehiegi hartzeak bien osasunari egiten dion kalteaz gain. Danielek beti jan ditu gozoak: beste edozein jakirik gabe moldatzen ziren haren etxean, baina gozorik gabe ez. Nabarmen eragiten dio gozorik ez hartzeak; triste jartzen da. Luis, berriz, beste gauza batzuk jatera ohitu da gure artean bizi denetik, eta diabetesa areagotzen ez dioten beste elikagai batzuk hartzen ditu.

Argi dago, beraz, banaka aztertu behar ditugula adinekoak. Ez dago beste biderik.

2.2. Adinekoaren, haren familiaren eta profesionalen partaidetza



Adinekoaren, haren familiaren eta profesionalen laguntza eta partaidetza eskatzen ditu erabaki bateratuak hartzeko prozesuak. **Denen ikuspegiak eta beharrak entzun eta aintzat hartu** behar dira parte-hartze horretan, akordioetara iritsi eta adostasunak lortzeko.

Alderdien arteko konfiantza eta errespetua izan behar du abiapuntu prozesuak, zeinak funtsezko elementu hauek baititu:



a Dauden **aukeren arrisku eta onurei buruzko informazioa** ematen dute profesionalak.



b **Bere buruaren** eta lehenetsunaren gaineko **informazioa ematen** du adinekoak (eta, hala badagokio, haren familiak), gogoeta egiten du aukeren abantailez eta desabantailez, eta bere balioak eta lehenetsunak adierazten edo kontuan hartzen.



c Informazioa trukatu ondoren, **elkarrekin erabakitzen dute profesionalak, adinekoak eta haren familiak** zein diren aukerarik onenak adinekoaren osasunerako, bizitzarako eta ongizaterako.



Maria, haren erreferentziako profesionala (Amaia) eta Raúl iloba elkartu ginen atzo, ohean gozokiak jateko Mariak duen ohituraz hitz egiteko.

Beldurra ematen digu gozokia kontrako eztaaritik ez ote zaion joango hura jaten ari dela lo hartzen badu. Duela egun gutxi gertatu zen hori. Gertakariak ez zion kalterik eragin Mariari, baina bai zirrara handia berari eta artatu zuen profesionalari.

Mariak dio eztaari freskatu egiten diola gozokiak jateak, eta lasaitu egiten duela gauean eztulka ari baldin bada (oso maiz, nonbait). Eztulak ematen badio, ez du lorik egiten, oso urduri jartzen da eta gaizki egoten da biharamunean.

Solasean ari ginela, gure kezka eskertu du Mariak, eta kontatu digu lehen baso bat esne bero hartzen zuela lotaratu aurretik, esneak eztula baretu egiten omen zion eta. Egoitzara etorri zenean, utzi egin zion gaueko esnea hartzeari, hemen hori egiterik izango ez zuelakoan.

Gau horretan bertan ekingo geniola esnearen konponbideari erabaki genuen. Eztularen aurkako gozokiak, berriz, egunez hartuko ditu, jaikita dagoenean.

Argixaoko profesionalak kontatua

2.3. Lehentasanak adinekoarentzat duen garrantziaz ohartzea

Prozesu honetan, funtsezkoa da jakitea zergatik eta zenbateraino den garrantzizkoa lehentasuna pertsonarentzat.

NOLA GOZATZEN DUTEN JATEN MIRENEK ETA BERE FAMILIAK...



Berrogeita sei urte ditu Mirenek, eta beti gozatu izan du bizitzaz, gogotik gozatu ere. 2016an, bilakaera azkarreko gaixotasun neurodegeneratibo bat diagnostikatu zioten. Lan egitea, bidaiatzea, eskulanak egitea, margotzea, txistua jotzea, jostea... eta, batez ere, jatea gustatzen zaio. Egoitzara etorri zenetik, pastelak, bonboiak, tututxoak eta abar ekartzen dizkiote senarrak eta amaginarrebak, baita bestelako jaki batzuk ere: arroza txirlekin eta otarrainxkak, besteak beste. Sukaldaria du senarra Mirenek. Mirenek gozatu egiten du jaten, jakiak irensteko zailtasunak dituen arren. Senarrak eta amaginarrebak, berriz, gustura asko prestatzen eta ekartzen diote hain gustuko duen janaria.

Egun, okerrera egin dio gaitzak, eta larria da disfagia-arriskua. Eurekin eta Mirenekin elkartu gara, zer egin erabakitzeko eta zenbait aukera aztertzeko. Gure testu- ritzatzailea utzi diegu, eta nola erabili behar den erakutsi; horrez gain, ahaleginak egingo ditugu Mirenentzat otorduak eguneko unerik onenetakoak izan daitezen.

Argixaoko profesionalak kontatua

Komeni da, bestalde, jakitea zer ondorio kaltegarri ekar ditzakeen lehentasun hori ez errespetatzeak. **Ondorioak eragiten ditu segurtasunagatik askatasuna murrizteak,** eta pertsoneri ere kalte larriak egin diezazkieke.

Ahal dela, **pertsonarekin zuzenean hitz egin behar** da beti; hartara, zer dioen jakingo dugu, eta libreki adieraziko du bere iritzia, bilera batean, non lehentasun hori zergatik eta zenbateraino den garrantzitsua argitu behar baita. Lagungarria izan daiteke entzute hori profesionalok eta senideek gure jokabideak aldatu eta beste gai batzuk azter ditzagun.

Komeni da **beretzia une jakin bateko lehentasuna den, ala aspalditik datorrena,** adinekoaren bizierarekin bat datorrena eta garrantzitsua haren nortasunerako eta ongizaterako. Gerta daiteke, halaber, lehentasun edo erabaki baten bidez kexa edo ondoez larri bat adierazten aritzea adinekoa, zuzenean aitortzen ez zaion gai edo behar batekin lotura duena.

AMAIAREN ONDOEZA



Amaiarekin gertatu zitzagun hori. Bere lehentasunaz hitz egiteko elkartu, eta orduan ohartu ginen bere ondoez sakona ari zitzagula adierazten.

Aldi baterako etorria zen Amaia, gaitz batetik suspertzera, etxean zenbait obra egiten zizkioten bitartean. Nahi baino gehiago ari da luzatzen Amaiaren egonaldia. Sendatuta dago jada; bere etxea, berriz, egokituta, baina haren ilobek ez dute nahi etxean bakarrik egon dadin. Amaiak, bien bitartean, egunero gozokiak janez baretzen du antsietatea, kontrolatzen oso zaila den diabetesa duen arren.

Berminghameko profesionalak kontatua

2.4. Arriskuak eta onurak baloratzea, eta irtenbide lorgarriak eta zuhurrak bilatzea



Hona erabakiak partekatzeko prozesuen helburua: **elkarrekin gogoeta egitea, adinekoak, profesionalak eta familiak onartuko dituzten akordioak lortzeko.**

Horretarako, oso estrategia egokia da **muturreko bi ibilbideak identifikatzea** eta, ondoren, **bitarteko ekintza-ibilbideak** proposatzea, horiek ematen baitute akordioetara iristeko aukera.



Prozesu horretan, **aukera guztien arriskuak eta onurak aztertu behar dira, eta kontuan hartu,** lehentasunaren aldeko plan pertsonalizatu bat prestatzeko. Komeni da **arriskuak identifikatzea eta haien maiztasuna ebaluatzea.**

Sarritan, lortzen diren akordioek arrisku batzuk onartzea ekarriko dute berekin. Onargarriz jo behar dira arrisku horiek, betiere handiagoa bada lortzea espero den onura jaso daitekeen kaltea baino.

Bestalde, ezinbestekoa da **laguntza-plan bat adostea eta prestatzea onartutako arriskuak gutxitzeko**, eta alderdi guztiek irmoki bat egitea harekin.

Mugak ere identifikatu eta azaldu behar dira. Hau da, argiro —eta adeitasunez— adierazi behar da zer aukera ez diren egingarriak eta zergatik ezin diren onartu gure egoitzan (esate baterako, lege-arrazoiengatik, pertsona hori edo beste batzuei kalte larriak eragiteko arriskuagatik, egungo antolakuntza-sistemaren gaitasun ezagatik...).

MIRENEN OTORDU-LEHENTASUNEN ALDE



Mirenen senarrari eta amaginarrebari trebakuntza emateaz gain, laguntza eta aholkularitza eskaini zuten unitateko erizainek eta profesionalek, eta zerrenda batean jaso ziren Mireni gehiena gustatzen zaizkion janariak eta haien testura egokiena, haietaz behar bezala gozatu eta arrisku ahalik eta txikiena izan dezan. Hainbatean behin begiratzen dugu nola doan prozesua, eta aldaketak ezartzen ditugu, betiere Mirenen egoera zein den eta gehiena zerk gozarazten dion kontuan hartuta.

Argixaoko profesionalek kontaktua



Oso txukuna da Mercedes, eta gustura garbitzen du etxea, baina batez ere bere arropa garbitzea, lehortzea eta lisatzea du gustuko.

Bere etxera joaten gara, laguntza behar baitu etxeko lanak egiteko. Eguneroko jardunean Mercedesentzat arriskugarriena izan zitekeen lana beste norbaitek egitea erabaki zuen haren familiak. Etxeko atikoko esekitokian zabaltzen zuen arropa Mercedesek, baina hara iristeko eskailera batetik igo behar zuen, eta zenbait oztopo gainditu. Mercedesen mugikortasun-arazoak kontuan izanik, handia zen erortzeko arriskua. Ondoeza eta etsipena eragin dio erabaki horrek Mercedesi, eta frustraturik sentitzen da, berarentzat garrantzizkoa den zerbait ezin baitu jada egin. Tristetu egiten du bere burua ahuldurik eta mugaturik ikusteak.

Mercedesekin gaiari buruz luzaro jardun, haren independentziari eustea zein garrantzitsua den egiaztatu eta arriskua aztertu ondoren, hau erabaki genuen: atikora igotzen jarrai dezala, baina beste pertsona bat alboan duela, hari helduta joan dadin; etxe barruan esekigailu bat jartzea, atikora igotzerik ez dagoenerako, eta lehorgailu bat erostea, oheko arropa lehortzeko (horretarako nahi duela esan digu Mercedesek).

Hasieran, Mercedes eta haren senide batzuk ez zeuden guztiz konforme konponbide horiekin, baina, azkenik, badirudi denak bat datozela. Txikiagoa da arriskua, eta Mercedesek independente izaten jarraitzen du, bere gauzen kontrola duela.

Etxeko arreta integraleko zerbitzuko profesionalak kontaktua (Matia Etxean)

2.5. Ekintza-plana prestatzea eta hura berrikustea

Lehentasunari nola ekin eta haren alde nola egin adostu ondoren, komeni da **modu sekuentziatuan deskribatzea zer ekintza bultzatu behar diren**, zehaztasun hauek emanez: zer laguntza behar dituen adinekoak bere lehentasuna gauzatzeko, eta berariazko zer neurri hartu behar diren arriskuak gutxitzeko.

Komeni da, halaber, **adostutako laguntza-plana dokumentatzea**, dagokion euskarrian. Prozesuaren argitasunarentzat eta ordenarentzat lagungarri izateaz gain, honetarako ere baliagarria da jokabide hori: frogatzeko, hala behar izanez gero, egoitzako langileen jokabidea egokia, profesionala eta ordenatua izan dela.

Ondo zehaztu behar da **zer urrats egin**, argi adierazi zer ekintza jarri behar diren martxan eta nori dagokion/dagokien adostutako laguntzak ematea. Halaber, **datak jarri behar zaizkie ekintzei eta azterketei**.

Ezinbestekoa da, bestalde, laguntza-planaren **jarraipena**. Erreferentziako profesionalaren egitekoa funtsezkoa da prozesu horretan.

Batzuetan, doikuntzak edo aldaketak egin beharko dira, **adinekoa ere partaide dela**.

Bestalde, dokumentatu egin behar da zer aldaketa egin diren hasierako planarekiko, nola adostu diren, nola baliozkotu diren gerora doikuntza azkarrak egin behar izan direnean, eta zer dela eta egin diren aldaketak.



2.6. Pertsonaren gaitasuna baloratu behar da

Gaitasuna: gai jakin bati aurre egiteko pertsona batek daukan ahalmena. Norberarentzat edo besteentzat arriskuak dakartzaten gaiei ekiteko edo haietaz erabakitzeke, arduraz jokatu behar da, hau da, ekintzak zer ondorio ekarriko dituen aztertu eta onartu ondoren.

Horregatik, kasu batzuetan erreparatu egin behar zaio haien balorazioari. **Egoera bakoitzari** bere gaitasuna dagokio. Hots, gaitasuna ez dago adinekoaren egoera edo patologiarik loturik (dementzia, gaixotasun mentala), baizik eta **ekintzaren edo lehentasunaren arriskuari**.

Zenbat eta handiagoa arriskua, orduan eta gaitasun-maila handiagoa beharko da erabakia hartzeko, orduan eta larriagoak izango baitira erabakiaren ondorioak. Arrisku txikiko lehentasun batek aski du baiespena; arrisku handiko batek, berriz, gaitasun handia eskatzen du.

Hori guztia kontuan harturik, **ataza edo lehentasun bakoitzerako baloratu behar da gaitasuna**. Ez da aski pertsonaren gaitasun kognitibo orokorraren balorazioa egitea.

Hona Appelbaum eta Grissoren (1988) lau irizpideak, pertsona batek erabakiak hartzeko duen gaitasuna egiaztatzeke proposatzen dituztenak:

- a** Aukera bat denboran zehar egonkor komunikatzeko gaitasuna.
- b** Informazio esanguratsua ulertzeko gaitasuna.
- c** Aukeren arriskuak eta onurak ulertzeko gaitasuna.
- d** Informazioa manipulatzeko eta koherentziaz arrazoitzeko gaitasuna.

Beraz, erabakiak hartzeko prozesuetako trebetasun psikologiko nagusiak ezagutu behar ditugu (kognitiboak, emozionalak eta borondatearenak). **Alderdi hauei erreparatzea gomendatzen da:**



Gaitasunak baloratzeko zenbait gida eta eskala garatu dira, eta interesgarriak izan daitezke ebaluazio sistematikoagoa eta egituratuagoa egin behar denerako.

Hona hemen bereziki interesgarriak izan daitezkeen **zenbait baliabide eta tresna balioztatu**, baloratu behar den lehentasuna zein den.

a. Whiteren gaitasun-irizpideak

Adinekoaren gaitasuna baloratzeko elkarrizketa erdiegituratu, tratamendu medikoak onartzeko (edo ez) baimena jasotzeko erabiltzen dena. Hau ebaluatzen du: **a)** informatua izateko gaitasuna, **b)** gaixotasunaz eta aukerez arrazoitzeko gaitasun kognitiboa eta afektiboa, **c)** erabakiak hartzeko gaitasuna, eta **d)** prozesuaren azalpen arrazoitua. Ez du ebaketa-puntuaziorik eskaintzen.

b. Gaitasuna ebaluatzeko laguntza-gida (ACE)

Tratamendu medikoak onartzeko edo haiei uko egiteko adinekoak duen gaitasuna ebaluatzen du. Badago Espainiako biztanleriarentzako balioztatutako bertsio bat (Moraleja et al., 2015).

c. McArthur eskala (Appelbaum eta Grisso, 2001)

Beharbada, gaitasuna baloratzeko gehiena erabiltzen den tresna. Zenbait herrialdetan balioztatua. Lau alderdi ebaluatzen ditu: **a)** ulermena, **b)** egoeraz jabetzeko gaitasuna, **c)** arrazoitzeko gaitasuna eta **d)** aukera hautatzeko eta adierazteko gaitasuna. Ez du ebaketa-puntuaziorik eskaintzen. Hiru bertsio garatu ditu sorta osoak: MAC CAT-Tratamenduak; MAC CAT-Lege-aholku-laritz, eta MAC CAT-Eguneroko bizimodua.

d. Gaitasuna baloratzeko DOMUSVI eskala (Torralba et al., 2018)

Berriki argitaratutako eskala, 22 itemekoa, Espainiako biztanleriaren lagin batean balioztatua. Ebaketa-puntuazioa eskaintzen du.

e. Sitges agiria (zenbait egile, 2005)

Honi buruzko informazioa ematen du gidak: egoeren konplexutasuna eta arriskuak kontuan harturik, noiz egin behar den dementziadunen gaitasunen balorazioa, zer goi-funtziori dagokien eta zer proba neuropsikologiko egitea gomendatzen den.

Zalantzarik gabe, oso lagungarriak izan daitezke tresna horiek eta beste batzuk. Dena dela, ezinbestekoa da profesional baten edo batzuen balorazio orokorra eta muin bakarrekoa, zenbait iturri eta datu kontuan hartzen dituen.

Ahal dela, komeni da profesional batek baino gehiagok egitea gaitasunaren balorazioa (mediku batek eta psikologo batek, adibidez).

MIKELEN ERABAKIA



Mikelek alkohola edaten jarraitu nahi du, gibelego gaitz larri bat daukan arren. Bizi osoan edan du. Egoitza ezin da irten aspaldi honetan, eta semeak ekartzen dio alkohola.


Ospitaletik itzuli berria da Mikel, eta buru-nahasteak eta desorientazioak hasi da izaten; badirudi narriadura kognitibo arina ari dela jasaten.

Edaten jarraitzen badu osasuna arrisku larrian jarriko duenez, erabaki dugu baloratzea baduen gaitasunik ala ez horretaz erabakitzeko.

Luze hitz egin dugu Mikelekin, zeinak aitortzen eta ulertzen baitu zer arriskuren pean dagoen, zer ondorio ekarriko dizkion bere zaletasunak... Elkarrizketa horretan Mikelek erakutsi duenez, gai da horretaz erabakitzeko. Bere lehentasunari eustea erabaki du.

Argixaoko profesionalak kontatua

2.7. Lehentasunaren alde ezin bada egin



Batzuetan, ez dugu lortzen adinekoak edo haren familiak nahi duenaren alde egitea, baina horrelakoetan ere profesional gisa jardun behar dugu. Funtsezkoa da **argiro eta garrantasunik gabe jakinaraztea** zergatik ezin ditugun onartu lehentasun horiek, bai eta zer aukera eta estrategia proposatzen ditugun murrizketak eragin dezakeen ondoeza leuntzeko.

Heldutasunez jardun behar du taldeak horrelako egoeretan, adeitsu eta ulerkor murrizketek adinekoari eragin diezazkieketen aurkako erreakzioekiko.

Ezin bada ez lehentasunaren alde egin, ez gutxieneko adostasun batera iritsi, **beste aukera batzuen berri eman behar zaio adinekoari edo haren sendiari** (beste erakunde batera jotzea, egoitzaz aldatzeko eskatzea...). Lasaitasun-giroan eman behar dira informazio horiek, kontuan izanik pertsonen eskubideak direla, eta saihestu egin behar dira ukapen eta gaitzespen jarrerak.

Adinekoak eta haren familiak gure egoitzan jarraitzea erabakitzen badute, eta onartzea lehentasunaren aurkako murrizketak, bereziki garrantzitsua da honako hau: **akordiorik ezak edo murrizketak adinekoari eragin diezaiokeen ondoeza eta ondorio kaltegarriak saihesteko edo gutxitzeko neurriak aztertzea eta hartzea.**





Antonia egunero irteten da kalera, COVID-19aren intzidentzia handia den garai honetan, eta unitatearen arratsaldeko ekintza batean hartu nahi du parte.

Antoniak ez du behar bezala erabiltzen maskara, eta arriskuan jartzen ditu unitateko gainerako adinekoak. Horretaz mintzatu ginen berarekin, eta zenbait aukera aztertu ondoren, haren lehentasunaren alde ez egitea erabaki genuen. Dena dela, aukera eman genion ekintza online jarraitzeko, tabletaren bidez, bere gelatik. Erabaki horri esker, leundu egin genuen Antoniaren ondoeza.

Berminghameko profesionalek kontatua

3. Baietzaren kulturarantz aurrera egitea



Egoitza askotako arreta-kulturan, segurtasuna da irizpide bakarra adinekoren batek arriskuak dakartzaten lehentasunak adierazten edo eskatzen ditueneko, baita askatasunik ezak kalte moral eta emozional larriak eragiten badizkie ere.

EZEZKOA izaten da lehenbiziko erantzuna (askotan, bakarra), adinekoen lehentasunek eta erabakiek egoitzei arriskuak ez ezik antolakuntza-arazoak ere eragiten dizkietela eta. COVID-19ak sortutako egoerak erakutsi digunez, murrizketek askotariko kalteak eragiten dituzte, eta adinekoak egokiro artatzeko ongizatearen azterketa integrala egin behar da.

Pertsona ardatz duen arreta baterantz jo nahi badugu, gogoeta egin behar dugu egoera horietaz, eta «arretaren kalitatea» deritzon ikuspegitik aztertu.

Kalitatearen ikuspegi berri bat behar dugu, non adinekoen askatasuna eta arrisku batzuk berenganatzeko eskubidea aintzat hartu behar baitira, betiere saihestu gabe egoitzek eta profesionalek kalterik ez eragiteko duten erantzukizuna. Ikuspegi horren arabera, aukera berriak arduraz bilatzeko konpromisoa berenganatu behar dute egoitzek eta haietako profesionalek.

Funtsezko elementuak

- 3.1. Sentsibilizazioa
- 3.2. Komunikazioa
- 3.3. Ingurune seguruak, malguak eta sortzaileak
- 3.4. Aliatuak komunitatean

3.1. Sentsibilizazioa




Pertsonen burujabetza sustatzen duten ikuspegietatik oso urrun dago, oraindik, iraupen luzeko arreten kalitateari buruzko gure kultura.



Pandemiak, berriz, ez digu atzera eginarazi behar orain arte egindako lorpenei dagokienez. **Kultura berri bat sortu behar** dugu, erakundeak pixkanaka aldaraziko dituen, erabakiak hartzeko garaian irizpide bakarrak segurtasuna eta osasun fisikoa izango ez dituen.



Horretarako, adinekoak artatzeko ikuspegi berri hori nola hedatu eta komunikatu ikasi behar dugu eta, horrekin batera, zerbitzu berriak eskaini, **pertsonen askatasunarekin eta balio indibidualekin lotura duten kalitateko elementu berriak** aintzat hartzen dituztenak.



Komeni da sentsibilizazio-ekintzak egitea egoitzan gai hauei buruz: **adinekoen eskubideak, segurtasuna, eta arrisku jakin batzuk onartzeko bideak**. Profesionalei, adinekoei, haien familiei, boluntarioei eta zerbitzuetan diharduten praktiketako ikasleei zuzendu behar zaizkie ekintza horiek.

3.2. Komunikazioa



Egoitzak argi eta garbi jakinarazi behar du **zer filosofia eta politika** dituen arriskuak dakartzaten lehentasunei eusten dieten adinekoen erabakiekiko.



Egoitzaren azalpen agirietan argi adierazi behar da informazio hori (sarrera-dokumentua, bizikidetza arauak eta gida eta abar).



Adinekoei, senideei, boluntarioei..., zaintzan esku hartzen duten eragile guztiei **jakinarazi behar zaie nola ekiten zaien gai horiei egoitzan, eta nola arrazoitzen dugun ikuspegi hori.**



Adinekoak egoitzara edo zerbitzura heldu aurretik eman behar zaie informazioa. Garrantzizkoa da jakitea nola jardun behar den arriskuak dakartzaten egoerekiko adinekoek beren lehentasunen berri azaltzean.

Lagungarri da jakintza hori adinekoek erabakitzeko hau den ala ez nahi duten zerbitzua eta arreta, bai eta arazoei ekiteko eta desadostasunei aurrea hartzeko ere.

3.3. Ingurune seguruak, malguak eta sortzaileak



Seguruak eta erosoak izan behar dute egoitzako eta bere bizikidetzako unitateetako inguruneek, bai denentzako eremuetakoek (egongela, jangela, sukaldea, lorategia), bai pribatuetakoek (gelak, komunak). Zalantzarik gabe, egoitzarena da horren erantzukizuna; adinekoa etxean baldin badago, berriz, erakundearena eta familiarena. Adinekoak babesteko egon behar dute diseinatuta egoitzek, ahalik eta arrisku gutxiena sortzeko pentsatuta. Eraikinen diseinuak, giroak eta ekipamenduak lagungarri izan behar du adinekoak seguru ez ezik gustura ere senti daitezen, batez ere zaintzapean edo giltzapeturik daudela senti ez dezaten. Teknologia berriak egokiak izan daitezke horretarako, ingurune seguruak eta murrizketa gutxiagokoak sortzeko, alegia.

Bestalde, oso baldintza garrantzitsua da, eguneroko arreta antolatzeko, **lantaldeen malgutasuna**, arduradunen laguntza dutela. Izan ere, balazta gisa jarduten dute zerbitzuaren zenbait egiturak, antolakuntza moduk eta jarrerak, eta ez dute uzten aurrera egiten arriskuak dakartzaten lehentasunen aldeko bidean. **Sormena** ere oso lagungarri da, eta egoera konplexuak konpontzeko ahalmen handia du.

Azkenik, funtsezkoa da lantaldeen trebakuntza, batez ere etikan eta **gogoeta-metodoetan**, jarrera irekiak eta arduratsuak izaten laguntzen baitu zenbait balioren arteko talka sortzen denean erabakiak hartzeko prozesuan.

3.4. Aliatuak komunitatean

Baietzaren kulturarantz jotzeko bide horretan, komeni da **inguruko komunitatearekin eta auzoko jendearekin aliantzak sortzea**. Izan ere, zenbaitek ez du ulertzen zergatik irteten den gure egoitzatik zailtasun batzuk dituen jendea (ibiltzeko arazoak, oroimenik eza...), zergatik duten askatasuna alkohola edateko eta tabakoa erretzeko... Batzuen iritziz, egoitzaren eta hango profesionalen arduragabekeriaren edo zuhurtziagabekeriaren seinale da askatasun hori, nahiz eta gure filosofiarekin bat etorri eta gurekin adostua izan.

Garrantzitsua da gizarteari jakinaraztea zer politika duen gure egoitzak bere egoiliarren askatasunarekiko, okerreko usteak saihesteko. Horretarako, garbi azaldu behar da zergatik duten askatasun hori eta zergatik beregana ditzaketen zenbait arrisku.

Gainera, komunitateko zenbait leku oso baliagarriak izan dakizkiguke (tabernak, dendak, farmaziak eta abar), pertsona jakin batzuen **arriskuak gutxitzeko neurriak hartzen lagundu baitezakete**.

Horrez gain, **adinekoekiko jarrera paternalista leuntzen** ere lagundu dezakete, eta haiekiko tratu onaren kultura sustatzen, haien eskubideak eta lehentasunak errespetatuz.





Entzuna genuen ondoko tabernak muztioa eskaintzen ziela, beti, gure egoitzako adinekoei.

Hitz egin dugu auzoko tabernetako arduradunekin, gure arreta sistemaren berri emateko eta hau jakinarazteko: pertsona bakoitzaren lehentasunak eta biziera dituela oinarri sistemak.

Beraz, gure egoitzako adinekoak taberna horietara joaten direnean jende heldu gisa trata ditzaten espero dugu, nahi dutena eskatzeko libre baitira.

Argixaoko profesionalak kontaktua

IZAKO PROFESIONALEK KONTATUA



«Arriskuak dakartzaten lehentasunen gaineko erabaki partekatuak hartzeko sistematika lagungarri izan zaigu hau bermatzeko: adinekoarekin ados jartzeko eman beharreko pauso guztiak ematen ditugula. Lehen, aukera gutxiago aztertuta hartzen genituen erabakiak, adinekoen lehentasunak baloratzen genituen arren, eta haien alde nola egin hausnartzen. Batzuetan, bidea laburtzen saiatzen ginen, hasieratik bilatuz konponbiderik eraginkorrena.

Orain, ikuspegi askoz zabalagoa dugu: denon artean aztertzen ditugu konponbideak, aukera guztiak baloratzen, zer arrisku dituzten begiratzeko, lantalde osoaren eta adinekoaren esku-hartzea bultzatzen, adinekoek zer sentitzen eta bere lehentasunaz zer pentsatzen duten aztertzen, aldakorrak izan daitezkeen haien beharrei erreparatzeko... Konplexuak dira prozesuak, baina emaitza, askoz ere hobea.

Familiak ere parte hartu duen kasuetan, honetarako balio izan du haren esku-hartzeak: adinekoaren interesak eta lehentasunak hobeto ezagutzeko, eta haren ikuspegiaren arabera erabakiak hartzeko, bera horretarako gauza ez baldin bada. Senideen parte-hartzea lortzeko ez ezik, honetarako ere balio digu horrek: sendotzeko adinekoaren nortasunaren, lehentasunen eta bizieraren ordezkari eta babesle gisa haiek duten egitekoa.

Bestalde, hartutako erabakiaren jarraipena egitera ere behartzen gaituenez —bai gu, bai adinekoa—, oso positiboa deritzogu horri ere. Denborak aurrera egin ahala sortzen diren aldaketetara egokitzen laguntzen digu, izan ere.


Azkenik, beste alderdi garrantzitsu bat azpimarratu behar da: sistematika horrek erakutsi digunez, lehentasun guztiak ez dira “arazoak”, eta haietako gehienek alde egin daitezke baldin eta ohartzen bagara garrantzitsuak direla adinekoarentzat eta mugak gehiago daudela geure buruan eta/edo arauetan arriskueta baino.»



«Lantalde osoarentzat zen begien bistakoa erabaki partekatuak hartzen hasi behar genuela. Askotan, alde bakarreko erabakiak hartzen genituen adinekoarentzat —batez ere haren osasunarentzat— arriskuzkoak ziren lehenetsunetik. Batzuetan, aukerarik murriztaileena hautatzen genuen, beldurrak eta ziurgabetasunak eraginda. Beste batzuetan, aldiz, lehenetsuna jartzen genuen ororen gaintetik, eta zuhurtziagabetzat jo litekeen erabakiren bat ere hartu izan dugu.

Asko ari zaigu laguntzen sistematika bat edukitzea; izan ere, ordenatu egiten du gogoetaren sekuentzia; behartzen gaitu lehenetsuna eta hari dagozkion arriskuen ebaluazioa entzutera, aukera zuhurrak bilatzera, non alderdi guztiek hartu behar baitute parte eta zeina idatziz jaso behar baita. Askoz hobea da erabakien kalitatea, eta askoz ere gusturago sentitzen gara prozesuan esku hartu dugun guztiok.

Estilo bat “desikasten” ari gara, nolabait, beste bat ikasteko. Estilo berri horretan, adinekoak ere hartzen du parte, eta ez dira denentzako konponbide eta erantzun berak hartzen. Askatasuna, irudimena eta oreka erabili behar dira.»



3. PRAKTIKARAKO BALIABIDEAK

Atal honetan, aurrera egiten lagunduko diguten baliabideak aztertuko ditugu.

Batzuk tresna metodologikoak dira (esku-hartze jakin batzuetarako eskuliburuak, informazioa erregistratzeko ereduak, euskarri metodologikoak...); beste batzuk, berriz, gogoeta zein jarrera aldaketa eragiteko eta ezagutza areagotzeko baliabideak (ikus-entzunezkoak, tresnak eta lanabesak, jarduerak, sentsibilizazio eta hausnarketa ariketak, trebakuntza saioak eta abar).

GIDA: «NOLA HARTU ARRISKUAK DAKARTZATEN LEHENTASUNEN GAINEKO ERABAKI PARTEKATUAK»

Deskribapena:



Gida laburra, arriskuak dakartzaten lehentasunen gaineko erabaki partekatuen hartzeko prozesurako sekuentzia bat eskaintzen duena, bai eta prozesua aurrera eramateko zenbait gomendio ere.

Zertarako den:

Erabaki partekatuen prozesuak egiten laguntzeko egoitzetako eta unitateetako lantaldeei, betiere adinekoa eta haren hurbileko senideak ere partaide direla, arriskuak dakartzaten lehentasunak jorratu behar badira edo egoitzak nekez onartu baditzake.

Prozesua eta lortutako akordioak dokumentatzeko.

Hemen eskuragarri:

<https://bit.ly/3AH0BiY>

ZENBAIT ADIBIDE

Deskribapena



Erabaki partekatuko prozesu bati jarraikiz azertu, jorratu eta dokumentatu ditugun zenbait egoera.

Zertarako den:

Adibide errealak eskaintzen dizkie metodologia hori erabili nahi dutenei. Oso baliagarria da bitarteko ibilbideak antolatzeko. Anonimotasuna bermatu behar du, beti, eta erakundeko profesionalak bakarrik erabili behar dute.

«ONGI ETORRI ZURE ETXERA» AGIRIA

Deskribapena:



Informazio esanguratsua jasotzen du agiriak, gure egoitzara bitzera etortzen denean adinekoari eta haren sendiari eman beharrekoa. Erabiltzaileen, senideen eta profesionalen arteko partaidetza prozesu batean prestatua da agiria.

Atal batean, arriskuak dakartzaten lehentasunekiko eta baietzaren kulturarekiko egoitzako lantaldeak duen jarrera ageri da.

Zertarako den:

Egoitzako kulturaren eta bizieraren informazioa ematen die adinekoei eta haien senideei. Bestalde, lantaldearen konpromisoa bermatzen du, esplizituki jasotzen baitu.

Hemen eskuragarri:

<https://www.matiafundazioa.eus/eu/zentroak/fraisoro>

PARTAIDETZAZKO GOGOETARAKO BALIABIDEAK

ARRISKUAK DAKARTZATEN LEHENTASUNEI NOLA EKITEN DIEGUN AZTERTZEKO ETA GOGOETA PARTEKATUA EGITEKO FITXA

Deskribapena:



Taldearen gogoeta prozesu bateratu batean autoebaluazioa egiten laguntzen duten fitxak, jardunbide egokiei buruzkoak.

Zertarako den:

Oso lagungarriak dira arriskuak dakartzaten lehentasunen gaineko erabaki partekatuen alderdi nagusietako indarguneak eta hobetu beharreko arloak identifikatzeko eta haietaz jabetzeko.

Jardunbide egokiei buruzko trebakuntza eta haien erabilera sustatzen dituzte, eta taldeetan edukiak partekatzen laguntzen.

Aurrera egiteko zer eremu lehenetsi behar diren identifikatzen laguntzen dute. Planifikatzeko baliagarriak dira, beraz.


Hemen eskuragarri:







<https://bit.ly/3uD8Rg4>

4.

ZENBAIT ARTIKULU ETA AGIRI INTERESGARRI

Atal honetan, orain arte aurkitu ditugun artikulu eta agiri interesgarrien zerrenda egin dugu, betiere jakinik etengabe eguneratu behar dela.

Dibulgazioko estiloan idatziak dira  sinboloa duten agiriak, errazago irakur daitezzen; horregatik, bereziki baliagarriak izan daitezke egoitza eta zerbitzuetako lantaldeen kontsultetarako. Horrek ez du esan nahi, jakina, gainerako agiriak beharrezkoak ez direnik edo balio txikiagoa dutenik, edozein dela ere sakondu beharreko gaia.

-  Álvaro, L.C. (2018). *Competencia en demencia. Manual de uso clínico*. Madrid: Médica-Panamericana.
-  Behrens, L., Van Haitsma, K., Brush, J., Boltz, M. Volpe, D., & Kolanowski, A. M. (2018). Negotiating Risky Preferences in Nursing Homes. A Case Study of the Rothschild Person-Centered Care Planning Approach. *Journal of Gerontological Nursing*, 44(8), 11-17.
-  Calkins, M., & Brush, J. (2016). Honoring individual choice in long-term residential communities when it involves risk: A person-centered approach. *Journal of Gerontological Nursing*, 42(8), 12-17. doi:10.3928/00989134-20160531-01.
-  Calkins, M., Schoeneman, K., Brush, J., & Mayer, R. (2015) A Procces for Care Planning for Resident Choice. Rothschild Person-Centered Care Planning Task Force.
-  Martínez, T. (2018). *Apoyar preferencias que implican riesgos*. <http://acpgerontologia.blogspot.com/2018/08/apoyar-preferencias-que-implican.html?m=1>
-  Red Zona Calidad (2015). Buena praxis profesional en algunos asuntos relacionados con la promoción de la autonomía y autodeterminación de las personas usuarias con discapacidad o dependencia. Serie docs. ZonaCalidad, N° 1. Oviedo: Consejería de Bienestar Social y Vivienda del Principado de Asturias. <https://ria.asturias.es/RIA/bitstream/123456789/5061/1/Archivo.pdf>

- Varios autores (2005). Análisis y reflexiones sobre la capacidad para tomar decisiones durante la evolución de una demencia. "Documento Sitges". Barcelona: Glosa.
- ✔ Matia Instituto. Del Barrio, E., Tomasena, A., Almazán, N., Diaz-Veiga, P., Sancho, M., Marsillas S. (2019). Guía para una vivienda amigable. Euskadi Lagunkoia. Gobierno Vasco. <https://www.euskadilagunkoia.net/images/guiaviviendaeskuorria-03-12.pdf>
- ✔ Matia Instituto. García, A., Del Barrio, E., Diaz-Veiga, P. (2019). Guía para una vivienda amigable con las demencias. Euskadi Lagunkoia. Gobierno Vasco. https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/doc_sosa_vivienda_demencia/es_def/adjuntos/guiademencia_es.pdf

matia
vivir con sentido